

Txarriboda makabroa



Ordizia

Kultura

Patxi Zubizarreta idazle ordiziarrak 'Zerria' liburua aurkeztu du, Lizardi sariaren 40. edizioaren irabazlea izan dena. «Gaurkotasuna du» idazlearen iritziz



2022/03/24

ariane vierbücher

Ordu «ilunak» bizi baditugu ere, atzokoan, argi pixka bat jarri zuen Patxi Zubizarreta idazle erdi ordiziarrak. 40. Lizardi saria irabazi du, *Zerria* (Erein argitaletxea) liburuarekin, eta atzo, ukitu zuen, aurkeztu zuen, Donostiako Udal Liburutegian.

Alboan izan zituen, proiektu honetan ere bidelagun izan duen, Antton Olariaga ilustratzailea, eta Inazio Mujika editorea. 40. edizio hau berezia da, ez bakarrik urteurren borobila delako, baita ere, lehenengoz, 13-17 urte bitartekoentzat zuzenduta dagoen literatur lanak saritu direlako. Zubizarretaren hitzetan, «autoestimua ariketa» bat izan da, eta «pozik» agertu da «funtzionatu» duelako.

Orain dela 30 urte Lizardi Saria eskuratu zion *Matias Ploffen erabakiak* ipuinean bezala, abentura gogo berberarekin abiatu da Zubizarreta. Oraingoan, historia makabroa du oinarrian: «Argumentua abiatzen da, batez ere, irakurri nuenean nola Frantzia aldean txerri batek baserri batean sehaskako ume bat hil zuen, baita jan ere. Txerria epaitu eta heriotzara kondenatu zuten. Jabeak ez, jabeak epaitu zituzten exekuzioa ikustera, baita inguruko baserriarrak txerriekin joan zitezen ere. Txerri hiltzailea, infantizidioaren egilea, jarri zuten gizon jantzian, eta borroko batek urkatu egin zuten, gero zatitu egin zuten eta erre egin zuten».

Liburu honetan, kontalaria, glaziologo bat da; «Alpeetan, glaziar bat urtu da eta bi gorpu agertu dira. ondoan piztia baten eskeletoa-edo ageri da». Horien nondik norakoak argitzea eta azaltzea da liburuaren muina.

Zubizarretaren kontakizunari, Olariagak ipini dio irudia. Ilustratzaileak aurkezpenean esan duenez, «lehia polita» izan ohi da testuarekin. «Idazleak bere fikzioa egiten du eta guk transmutazioa egiten dugu, hizkuntza grafikoan». Adierazi duenez, lehia horretan zailena da «testuari traizioa ez egitea». Emaizta «zoragarria» izan da Zubizarretarentzat.

Gaurkotasuna

Liburuak «gaurkotasuna» hartzen du Zubizarretaren iritziz, «*Homo Homini Lupus* esaten da; gizona gizonarentzat otsoa dela. Eta esango nuke, gaur egun ere, horrelaxe gabiltzala, badituela gizakiak batzuetan oso jarrera makabroak, triskantza beldurgarriak egiten ditu, egun hauetan ikusten ari garenez ere bai». Idazleak esan du, «maila pertsonalean eta gizarte mailan», hori dela liburu honek duen «kritika». «Behar bada, *Homo Homini Porcus* bihurtzen da historia».

Goierriko albisteak euskaraz, libre eta kalitatez jaso nahi dituzu? Horretarako zure babesa ezinbestekoa zaigu. Egin zaitez harpidedun, izan HITZAKide! Zure ekarpenari esker, euskaratik eginda dagoen tokiko informazio profesionala garatzen eta indartzen lagunduko duzu.

Egin HITZAKide

Azken 3 egunetako irakurrienak

1

Xabi Mujikak eta Miriam Iztuetak Kantabriako Pirelli Kopan parte hartuko dute

2022/03/23

Urrebu

2

Galdosena da ezirik onena

2022/03/23

Legazpi

3

Ziaboga hartuta, Lazkao ere festetarantz

2022/03/23

Lazkao

4

Klima aldaketa hizpide, EAJ-k larunbatean Legazpin egingo duen jardunaldian

2022/03/23

Legazpi

5

XX. lore eta landare azoka egingo dute igandean, bi urteko etenaren ostean

2022/03/23

Segura



Azken berriak

Goierriko azken berriak jakin nahi dituzu? Harpidetu gure buletinera!

Izen-abizenak * Posta elektronikoa *

Pribatutasun Politika irakurri eta onartzen dut.

Harpidetu

943 16 00 56
goierri@hitza.eus
Oriamendi, 32 - BEASAIN

Nor gara



Babesleak:



Argitalpen politika
Aniztasun politika
Pribatutasun politika
Cookieak